



**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2014. EKITALDIKO URTEKO KONTU BATERATUAK,
IKUSKARITZA TXOSTENAREKIN BATERA**



**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2014. EKITALDIKO URTEKO KONTU BATERATUEI
BURUZKO IKUSKARITZA TXOSTENA**



BASAURIKO UDALEKO 2014. URTEKO KONTU BATERATUEI BURUZKO IKUSKARITZA TXOSTENA

BASAURIKO UDALEKO Kontu-hartzaileari:

I. SARRERA

Erantsitako BASAURIKO UDALAREN (Udala aurrerantzean) eta haren mendeko “UDAL KULTUR ETXEA”, “KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA”, “BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA” eta “UDALAREN LAGUNTZA KOMUNITARIOKO ZENTRO ETA AUTONOMIA PERTSONALERAKO EGOITZA” organismo autonomen eta “BASAURI –ETXEBARRI BEHARGINTZA, S.L.” eta “BIDEBI-BASAURI, S.L.” sozietate publikoen, urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu, aipatutako entitateen 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratua eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazi kontu bateratua, memoria bateratua, aurrekontuaren likidazio-egoera bateratua eta aurrekontu emaitza bateratuaren eta mozkin bateratuaren arteko kontziliazioa barnean hartzen dituelarik.

Bateratutako entitate bakoitzeko Lehendakari eta Esku-hartzaileak urteko kontuen formulazioaren, eta kasu denean, aurrekontu kitapen ematearen arduradunak dira, aplikagarria zaion finantza informazio esparruan oinarrituta (aurrekontu mugatua duten entitateen kasuan Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta Bizkaiko Toki Erakundeetako Aurrekontuen egitura eta Kontabilitate Publikoko Plan Nagusiak onesten duen 2004ko abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretuak ezarritakoa delarik. Bestaldetik, mendeko sozietate publikoek azaroaren 16ko 1514/2007 Errege-Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorraren eta azaroaren 16ko 1515/2007 Errege-Dekretuak onetsitako Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorraren arabera eta legezko xedapenek derrigorrezten dituzten kontabilitate gaien arabera aurkezten dituzte beraien urteko kontuak), eta partikularrean, printzipio eta kontabilitate irizpide publikoetan oinarrituta. Era berean, errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak eta aurrekontu kitapena prestatzeko barne kontrol egokienaren arduradunak dira. Udaleko Kontu-hartzaileak, erantsitako memoriako 2.c atalean



isladatutako irizpide eta prozeduretan oinarrituta, formulatutako eta emandako urteko kontuen eta aurrekontu kitapenen bateratzea burutu du.

II. LANAREN HELBURUA ETA ZENBATERAINOKOA: AUDITOREAREN ERANTZUNKIZUNA

Gure erantzunkizuna, sektore publikoko ikuskaritzarako araudiarekin bat egindako lanean oinarrituta, erantsitako urteko kontu bateratuei buruzko iritzia adieraztea da. Araudi hauek, modu arrazoigarrian, hutsegite esanguratsurik gabeko urteko kontu bateratuak lortzeko helburuarekin, ikuskaritza lana planifikatu eta gauzatzea eskatzen dute.

Ikuskaritza batek, urteko kontu bateratuetan biltzen den informazioari eta zenbatekoei buruz ikuskaritzako ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten prozedurak aplikatzea eskatzen du. Aukeratutako prozedurak auditorearen iritziaren arabera dira, iruzurrengatik edo errakuntzengatik urteko kontu bateratuetan hutsegite esanguratsurik egoteko arriskuaren balioztatzea barne. Arriskuaren balioztatzea egitean, kudeatzaileak erantsitako urteko kontu bateratuen prestaketarako eta aurkezpenarako garrantzitsua den barne kontrola kontuan izango du auditoreak, egoeren arabera egokiak diren ikuskaritza prozedurak diseinatzeko asmoz, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko asmoz. Ikuskaritzan ere, aplikatutako kontabilitate-irizpideen egokitasunaren eta kudeatzaileak egindako kontabilitate estimazioen arrazoigarritasunaren ebaluazioa egin behar dira, hala nola, balantze bateratua, galdu-irabazi kontu bateratua, memoria bateratua, aurrekontuaren likidazio-egoera bateratua eta aurrekontu emaitza bateratuaren eta mozkin bateratuaren arteko kontziliazioaren aurkezpenen osotasunaren ebaluazioa ere.

Lortu dugun ikuskaritzako ebidentziarekin salbuespendun ikuskaritza iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.



III. LANAREN EMAITZA: SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

Aurreko ekitaldiko urteko kontu bateratuei buruzko geure ikuskaritza iritziak, salbuespen bat barneratu zuen udalaren erakunde diru-emaile batek 2013. urtean haren aurrekontuaren kargura egindako ordainketei buruzko baieztapena jasotzeko egin genuen eskaeraren erantzuna jaso ez izanagatik eta udalarekin harreman profesionala izan zituzten zenbait abokaturen erantzun faltagatik, udalarengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen guztizko obligazioen edo pasibo kontingenteei dagokienez. 2014. ekitaldian, 2013. ekitaldiko ikuskaritzan izandako mugapen berdina izan dugu.

Txosten honen datan, udalaren bi hartzekodunei, 2014ko abenduaren 31ko zorraren osaeraren eta data horretan amaitutako ekitaldian hauekin izandako eragiketabolumenaren inguruan, egindako eskaeraren erantzuna ezin izan dugu jaso, ezta ekitaldian zehar Udalarekin, Egoitzarekin, Euskaltegiarekin, Kirol erakundearekin eta Kulturakoarekin harreman profesionalak izan dituzten zenbait abokatuena ere (aurreko parragrafoan aipatutakoaz gain), bakoitzengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz, sor daitezkeen guztizko obligazioak edo hauen ondoriozko pasibo kontingenteen inguruan.

“Basauriko udal euskaltegia” organismo autonomoak, ez ditu 2010eko uztailaren 2tik eta 2011ko maiatzaren 27ra bitartean Errektore Kontseiluak burututako bilera baten baten aktak gure eskura jarri, gutxienez, 2011ko otsailaren 9an egindakoa falta delarik, horietan hartutako ebazpenak eskuratu eta egiaztatu ezin izan ditugularik. Honen ondorioz, ezin dugu zehaztu erantsitako 2014ko urteko kontu bateratuetan eragina izan dezaketen erabakiak hartu direnik. Geure 2013. ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskaritza txostenaren iritziak, honen ondoriozko salbuespena barneratu zuen.

Basauriko Udalaren mendeko organismo autonomoek ondasun inbentariarik ez daukate. Beraz, ezin dugu erantsitako 2014. ekitaldiko urteko kontu bateratuetako “ibilgetu materiala” epigrafean erregistratzen diren eta udalak adskribitu ez dituen ondasunei dagokien 8.491 mila euroko balio gordinari buruzko iritzirik eman (8.404 mila euro 2013an). Geure 2013. ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskaritza txostenaren iritziak, honen ondoriozko salbuespena ere barneratu zuen.



Halaber, geure aurreko ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskaritza txostenak, hainbat lursailen balorazioaren inguruko salbuespen bat barneratu zuen lanaren zenbaterainokoa mugatuz. 2014an, 2013ko zifra konparatiboak egokitu ez arren, Udalak lursail hauen balioa erregistratzeko 1.712 mila euroko doiketa burutu du, aurreko urteko salbuespena desagertuz. Honen ondorioz, 2013ko abenduaren 31ko “Lurzoruaren udal ondarea” eta “Ondarea” epigrafeen saldoak gutxietsiak daude eta 2014ko abenduaren 31ko “Galerak eta irabaziak” eta “Ondarea” epigrafeen saldoak, aipatutako zenbatekoan, gainbaloratua eta gutxietsia daude, hurrenez hurren.

Gainera, gure lanean zehar, aplikatu beharreko kontabilitate printzipio eta irizpideen arabera, erantsitako egoera-orri bateratuen barne hartu beharko liratekeen zenbait doikuntza geratu dira agerian. Jarraian adierazten dira doikuntza horien izaera eta 2014ko ekitaldiko aurrekontu emaitza bateratuan, diruzaintzako gerakin bateratuan eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuan, hala nola, 2013ko abenduaren 31ko balantze bateratuko “Berezko fondoak” kapituluan dituzten ondorioak:

Gehigarria / (Gutxitu) -Euroak-

Kontzeptua	2014ko Ekitaldia							2013ko Ekit.
	Diruzaintz. gerakina	Aurrek. emaitza	Aktibo finkoa	Aktibo zirkulatz.	Pasibo finkoa	Ekitaldiko emaitza	Gainontze ko Berezko Fondoak	Berezko Fondoak
UDALA Aitortu gabeko 4. hiruhilabeteari dagozkien ur-horniduraren, zabor-bilketaren eta estolderia-zerbitzuaren tasetatik datozen sarrerak	-	-	-	969.004	-	32.520	936.484	936.484
Ekitaldi itxieran aitortu ez diren eta ekitaldiari dagokion estatuko eta probintziako JEGZren likidazioak	87.200	(39.413)	-	87.200	-	(39.413)	126.613	126.613
Hurrengo ekitaldian erregistratuak izan diren udal zergetiko (521.808) eta “enpresa hornidura okupazio tasetiko” (219.244) sarrerak	-	-	-	741.052	-	122.393	618.659	618.659
Ekitaldiari dagokien baina itxiera datan aitortu ez diren obligazioak - Su itzaltze foru zerbitzuko ekarpenaren kitapena - Etxez Etxeko laguntza zerbitzua. 2014ko Abenduak	(333.308) (162.000)	(7.449) (162.000)	- -	- -	333.308 162.000	(7.449) (162.000)	(325.859) -	(325.859) -



Kontzeptua	2014ko Ekitaldia							2013ko Ekit.
	Diruzaintz. gerakina	Aurrek. emaitza	Aktibo finkoa	Aktibo zirkulatz.	Pasibo finkoa	Ekitaldiko emaitza	Gainontze ko Berezko Fondoak	Berezko Fondoak
2013. ekitaldiko "Udalkutxa" likidazioaren erregistroan ezberdintasunak	-	(181.501)	-	-	-	(181.501)	181.501	181.501
2014.12.31-an burutzeko zailak edo ezinezkoak diren eskubideen gehiegizko zenbatespena	114.379	-	-	114.379	-	114.379	-	-
2012. urtean, lehenengo ekarpen moduan, F lursailean udalak duen parte-hartzeari dagokion urbanizazio kargen ordaintzetengatiko aktibazio falta	-	-	172.594	-	-	-	172.594	172.594
Aurreko ekitaldiei dagozkien, baina ekitaldiko galdu-irabazi kontuan erregistratutako <i>erabilera orokorrerako inbertsioak</i> eta <i>ibilgetu materiala</i> epigrafeetan egindako saldoen erregulazioa	-	-	-	-	-	(792.773)	792.773	-
Emakida eta probetxamendu bereziengatiko sarrera kontuan kontabilizatu beharrean, ez-ohiko emaitzen kontuetan erregistratua izan den beilatoki emakidaren administrazio kontratuari dagokion obra berri deklarazioaren balorazioaren birsailkapena:								
- Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	-	-	-	-	-	414.138	-	-
- Ez-ohiko emaitzak	-	-	-	-	-	(414.138)	-	-
IMD BASAURI Finantza desbideraketa negatiboen kalkuluaren gutxiespena	-	92.240	-	-	-	-	-	-
TOTAL	(293.729)	(298.123)	172.594	1.911.635	495.308	(913.844)	2.502.765	1.709.992



2007ko abenduaren 21ean Udalak ADIF Infraestructuras Ferroviarias-eko Administrazioarekin eta Bilbao Ria 2000, SA sozietate publikoarekin lankidetzahitzarmen bat sinatu zuen. Horren bidez, aipatutako sozietateari Bidebieta-Pozokoetxe-Lapatza kudeatzeko ardura ematen zitzaion. Hitzarmen horren arabera, Udalak eragiketaren ondorioz lortutako baliabideekin honen bideragarritasun materiala eta ekonomikoa ziurtatzeko konpromisoa hartu zuen. Baina eragiketa autofinantzatzea espero bazen ere, aipatutako sozietateak eragiketa garatzean izan dituen finantza-desfaseak, errekurso propioekin ordaintzen joan da. 2014ko abenduaren 31an, sozietate horri egindako 3.098 mila euroko ordainketak (2.898 mila euro 2013ko abenduaren 31arte ordaindutak) epe luzerako aurrerakintzat hartu dira, eta data horretara erantsitako balantze bateratuko “Finantza-ibilgetua” epigrafean kontabilizatu dira. Horretaz gain, badira enpresa horrek eginiko eta erantzun ez diren 1.361 mila eurotako diruzaintza eskaerak. Udalak 2013, 2014 eta 2015 ekitaldien bitartean gauzatzea espero du. Hala ere, deskribatutako gertaerak ez dira erantsitako memoria bateratuan azaltzen, aurrerakina kitatzeko eraren, unearen eta kopuruaren inguruan, bai eta eragiketa horren etorkizuneko emaitzen inguruan ere, emandako aurrerakinak data horretan erregistratutako zenbatekoetan gauzatu daitezkeen ez jakinik edo adierazitako egoerabalantze bateratuan horniduraren bat erregistratzea bidezkoa litzatekeen. Honen emaitza, entitatearen zuzeneko kontrolaren menpe ez dauden akzio eta etorkizuneko gertaeren menpe dago. Geure 2013. ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskapen txostenaren iritziak, honen ondoriozko salbuespena ere barneratu zuen.

IV. IRITZIA

Gure iritiz, “Lanaren emaitza: Salbuespendun iritziaren oinarria” atalean deskribatutako efektuek aurreko ekitaldiko konparazio-zifretan dauzkaten ondorioak izan ezik eta deskribatutako eragin posibleen eta eraginengatik izan ezik, erantsitako urteko kontu bateratuak, alde esanguratsu guztietan 2014ko abenduaren 31an BASAURIKO UDALAREN eta berezko nortasun juridikoa duten udalaren mendeko organismo autonomoen eta sozietate publikoen (aurreko “I. Sarrera” atalean eta erantsitako memoria bateratuaren 1. oharrean deskribatutakoak), ondare bateratuaren eta finantza egoera bateratuaren irudi fidagarria ematen dute, eta data horretan bukatutako ekitaldiko eragiketen emaitza bateratuarena, aurrekontu likidazio-egoera bateratuarena



- 7 -

eta jatorriko eta aplikatutako baliabide bateratuena ere, aplikagarria den finantza informazioaren esparru-araugilearen arabera, eta partikularrean, hauen kontabilitate eta aurrekontu printzio eta irizpideen arabera.

Betean Auditoría, S.L.P.

A handwritten signature in blue ink is centered within a light yellow rectangular box. The signature is highly stylized and cursive.

José Ignacio Miguel Salvador

Bilbon, 2015eko uztailaren 2an





**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

2014. EKITALDIKO URTEKO KONTU BATERATUAK

BASAURIKO UDALA

2014. Urteko Kontu Bateratuak

BASAURIKO UDALA
2014 eta 2013ko abenduaren 31n bateratutako egoeren balantzeak
(milaka eurotan adierazita)

AKTIBOA	2014	2013	PASIBOA	2014	2013
Ibilgetua	77.395	77.078	Berezko fondoak	76.801	77.316
Erabilera orokorrerako inbertsioak	860	904	Ondarea	96.953	97.693
Ibilgetu ez-materiala	609	786	Lagatako ondarea	(21.320)	(21.772)
Ibilgetu materiala	66.398	68.311	Erreserbak sozietate publikoetan	53	163
Lurzoruaren udal ondarea	6.061	3.926	Galerak eta Irabaziak	1.114	1.232
Ibilgetu finantzarioa	3.467	3.151			
Aktibo zirkulatzaila	13.075	14.808	Hornidurak, arrisku eta gastuetarako	80	80
Zordunak	2.999	6.583			
Finantza-kontuak	10.076	8.225	Hartzekodunak, epe luzera	6.828	7.672
			Zorrak, kreditu erakundeekin	6.828	7.672
			Hartzekodunak, epe laburrera	6.761	6.818
			Hartzekodunak	2.635	3.374
			Herri erakunde hartzekodunak	1.678	1.594
			Bestelako zorrak	1.681	1.289
			Aplikatu gabeko diru-sarrerak	767	561
Aktiboa guztira	90.470	91.886	Pasiboa guztira	90.470	91.886

BASAURIKO UDALA
2014 eta 2013ko abenduaren 31 amaitutako urteko ekitaldietarako galera eta irabazien kontu bateratuak
(milaka eurotan adierazita)

GASTUAK	2014	2013	SARRERAK	2014	2013
Ustiapen gastuak	50.013	49.264	Ustiapeneko sarrerak	49.933	51.269
Pertsonaleko gastuak	21.160	20.269	Zerbitzu-eskaintzak	8.926	9.100
Ibilgetuaren amortizazio-hornidurak	3.372	3.430	Zuzeneko zergak	11.910	13.665
Trafiko-horniduretako aldaketa	144	251	Zeharkako zergak	1.132	799
Emandako transferentziak eta diru-laguntzak	3.386	3.234	Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	26.804	26.033
Ustiapeneko bestelako gastuak	21.954	22.080	Ohiko gestioko beste sarrerak	1.161	1.672
Ustiapenaren mozkina		2.005		83	
	20		Emitza finantzario negatiboak		158
Ohiko jardueren mozkina		1.847		63	
	1.428		Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak		156
			Ezohiko emaitza negatiboak	251	459
Ekitaldiko mozkina					
	1.114	1.232			

BASAURIKO UDALA
2014. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera
Gastuei buruzko aurrekontuaren likidazioa
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Konprometit u gabeko kredituak	Konprometit utako kredituak	Ezagututako obligazio garbiak	Egindako ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak
I	Pertsonaleko gastuak	20.827	888	21.715	707	21.007	20.990	20.971	19
II	Erosketak eta gastuak	23.443	337	23.781	684	23.096	22.158	19.962	2.196
III	Gastu finantzarioak	134	0	134	68	66	66	66	0
IV	Transferentzia arruntak	2.793	528	3.321	223	3.098	3.098	3.052	47
VI	Inbertsioak	1.201	8.739	9.940	4.130	5.810	3.540	3.299	241
VII	Kapital transferentziak	360	42	402	115	288	288	265	23
VIII	Finantza-aktiboak	300	104	404	98	306	306	297	9
IX.	Finantza-pasiboak	945	0	945	0	945	945	945	0
	Orotara	50.003	10.638	60.641	6.025	54.617	51.390	48.856	2.535

BASAURIKO UDALA
2014. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera
Sarrerei buruzko aurrekontuaren likidazioa
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Ezagututako eskubide garbiak	Dirubilketa garbia	Bildu gabeko eskubideak
I	Zuzeneko zergak	11.780	0	11.780	11.911	11.224	687
II	Zeharkako zergak	850	0	850	1.133	995	137
III	Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	10.216	65	10.282	9.798	8.369	1.429
IV	Transferentzia arruntak	26.514	964	27.478	26.648	26.376	273
V	Ondare-sarrerak	142	0	142	152	151	1
VI	Inbertsioak besteentzea	300	133	433	152	152	0
VII	Kapital transferentziak	0	705	705	156	-21	177
VIII	Finantza-aktiboak	200	8.271	8.471	112	112	0
IX	Finantza-pasiboak	0	500	500	500	500	0
	Orotara	50.003	10.638	60.641	50.561	47.857	2.704

BASAURIKO UDALA
2014. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera
(milaka eurotan adierazita)

Doitutako aurrekontuaren emaitza

	2014	2013
Ezagututako eskubide garbiak	50.561	50.468
Ezagututako obligazio garbiak	(51.390)	(48.923)
Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza	(830)	1.545
Itxitako aurrekontuen emaitza	(284)	(157)
Aurrekontuaren emaitza	(1.114)	1.387
Finantziazio-desbideraketa positiboak	(709)	(469)
Finantziazio-desbideraketa negatiboak	0	20
Diruzaintzako soberakinekin finantzatutako gastuak	2.941	1.587
Doitutako aurrekontuaren emaitza	1.119	2.525

Aurrezki garbia

	2014	2013
Sarrerei buruzko I. Kapitulutik V.era	49.641	48.540
Gastuei buruzko I., II. eta IV. kapituluak	(46.246)	(45.365)
Aurrezki gordina	3.395	3.175
Gastuei buruzko III. kapitulua	(66)	(67)
Gastuei buruzko IX. kapitulua	(945)	(945)
Aurrezki garbia	2.384	2.164

BASAURIKO UDALA
2014. ekitaldiko aurrekontu emaitzaren eta mozkinaren arteko kontziliazioa
(milaka eurotan adierazita)

Kontzeptua	Zenbatekoa
Doitutako aurrekontuaren emaitza	1.119
Igotzeak:	
Inbertsioak	3.540
Aurreko ekitaldietako sarrerak	1.712
Afektaturiko finantziazio-desbideraketa positiboak	709
Finantza-aktiboak	306
Finantza-pasiboak	945
Bateratutako sozietateetako emaitzak	71
Aplikatu gabeko fakturen aldaketak	32
Murrizketak:	
Ibilgetuaren galerak	24
Ibilgetuaren amortizazioa	3.372
Diruzaintzako soberakinekin finantzatutako gastuak	2.941
Finantza-aktiboak	112
Finantza-pasiboak	500
Ezohiko galerak	227
Trafiko horniduretako aldaketak	144
Ekitaldiko mozkina	1.114

BASAURIKO UDALA

Memoria bateratua

1. Erakundearen izaera eta jarduera

Honi erantsitako urteko kontu bateratuak Basauriko Udalarri, Erakunde Autonomoei (Kultur Etxea, Kirolaren Udal Erakundea, Udal Euskaltegia eta Zaharren Egoitza) eta Menpeko Sozietate Publikoei (Basauri-Etxebarri Behargintza, SL eta Bidebi-Basauri, SL) dagozkienak dira, eta horien jarduerak toki-erakunde batek berezkoak dituenak dira, Bizkaiko lurralde historikoko toki-erakundeei aplikagarri zaien lege-arautegiaren arabera.

2. Aurkezpeneko oinarriak

a) Irudi fidela

Finkatutako urteko kontuak Basauriko Udalaren, Erakunde Autonomoen eta Menpeko Sozietate Publikoen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira, eta finkapeneko arauen eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurkezten dira, modu horretan, ondarearen, egoera finantzarioaren, Aurrekontu egikaritzearen, eta Finkatutako Erakundearen emaitzen irudi fidela ematea bilatzen da.

Aurreko paragrafoan adierazitako aurrekontuari buruzko informazioak Udalaren eta horren Erakunde Autonomoen datu bateratuak jasotzen ditu; baina ez menpeko sozietateenak, horiek ez baitute aurrekontu-likidaziorik aurkezten, merkataritzako izaera baitute.

b) Kontu-sailak elkartzea

Balantzea eta galera eta irabazien kontua hobeto ulertzeko, egoera horiek elkartuta aurkeztu dira, eta eskatutako azterketak memoriaren ohar egokietan aurkeztu dira.

Halaber, berezko fondoan aurkezpena hobetzeko asmoz, Ondarea epigrafeak izen bereko kontuaren, erabilera orokorreko ondarearen eta aurreko ekitaldietako emaitzen guztirako saldo garbia erakusten du, memoria honen 11. oharrean zehaztuta dagoenez.

c) Bateratzea

Urteko kontu bateratuak kontabilitatea bateratze irizpide orokorren arabera prestatu dira, batez ere, integrazio globaleko ereduari jarraiki. Horretarako, bateragarria den perimetroan dauden erakundearen arteko transakzio guztiak ezabatu egin dira, eta baita ere ondare-eragina ere, baldin eta hori Udalak Erakunde Autonomoei ondasunak esleitze bidez badator.

Menpeko Sozietate Publikoei dagokienez, kontu bateratuetarako beraien ondare urritasuna ikusita, baliokidetzan jartzeko metodoa erabili da.

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

d) Ondarearen erregularizazioa

2013. ekitaldian, Udalak Ibilgetuaren eta Lagateko eta Erabilera Orokorreko Ondarearen saldoak erregularizatu zituen, Ondasunen Inbentarioak erakusten dituen zenbatekoekin bat egiteko asmoz. Esandako inbentarioaren informazioa, Entitatearen kontabilitate sistemarekin bateratuta dagoen kudeaketa aplikazio informatiko berri bati erantsi zitzaion, garbitze eta egiaztatze prozesu baten ondoren.

Erregularizazio horren ondorioz, zenbait doikuntza egin ziren ibilgetuaren epigrafeetan eta horiek 2013. ekitaldiko ez-ohiko emaitzen kontuan 570 milaka euroko efektu garbia eragin zuten.

3. Baloratzeko arauak

a) Erabilera orokorrerako inbertsioak

Erabilera orokorrerako inbertsioak eskuratze-prezioan edo ekoizpen-kostuan baloratu behar dira. Eraikuntza edo ekoizpen prozesua amaitutzat jotzen den eta herritarren erabilera orokorrera entregatuak diren unean, kontu honetan baja ematen zaie eta Ondareko kontuan zordun egiten zaie.

b) Ibilgetu ez-materiala

Ibilgetu ez-materialak erositako edo produkzio-kostuko prezioan kontabilizatuta daude. Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatzen da, hurrengo bizitza erabilgarriaren arabera:

	<u>Urteak</u>
Informazio prozesuetarako ekipoen softwarea	5
Bestelako ibilgetu ez-materiala	10

c) Ibilgetu materialak

Ibilgetu materialaren barruan dauden ondasunak baloratzeko kontuan hartu da eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua. Doan eskuratutako ondasunak direnean, eskuratzeko unean ondasun horiek daukaten benetako balioa izango da eskuratze-prezioa.

1990eko uztailaren 17ko Toki Erakundearen Kontabilitate Instrukzioari erantsitako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorren IIA. atalean bildutako balorazio-irizpideen arabera, lehenengo urteko kontuak ezarritakoan agertu ziren ibilgetu materialaren ondasunak, batez ere, aditu independente batek egindako tasaziotik ondorioztatutako balioen arabera erregistratu ziren.

Linealki amortizatu ziren, horien bizitza erabilgarriaren arabera, eta hurrengo

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

koefizienteen funtziotan:

	<u>Urteak</u>	<u>%</u>
Eraikinak	50	2
Instalazio teknikoak eta makinak	8	12,5
Altzariak	8	12,5
Informazioa prozesatzeko ekipoak	5	20
Garraioko elementuak	5	20
Bestelako ibilgetu materiala	8	12,5

Dauden ondasunetan aktiboen iraupen baliagarria luzatzen duten hobekuntzak kapitalizatu egiten dira. Ibilgetu materialarekin harreman zuzena daukaten eta abian jarri baino lehen sortzen diren finantza gastuak eta trukeko diferentziak ere kapitalizatu egiten dira. Mantentze- eta iraunarazte-lanen gastuak, sortzen diren unean emaitzetan kargatzen dira. Bajak eta besterentzeak kontabilitatean agertzeko, elementuaren kostua eta dagokion amortizazio metatua ezabatzen dira.

d) Lurzoruaren udal ondarea

Lurzoruaren udal ondarean sartutako ondasunak, ondarezko izaera izanik, hiri-lurrean edo lur urbanizagarrian kokatutako lur-sailak eta eraikinak dira. Horien erosteko edo eraikitzeak kostua islatzen da. Doan lortu badira, hori gertatu den momentuko salmentabaliao jarriaz kontabilizatzen dira.

Lurzoruaren udal ondarearen barruan dauden ondasunak metodo linealaren bidez amortizatzen dira, hain zuzen, ibilgetu materialean barne sartutako ondasunen bizitza erabilgarri beraren funtzioan.

e) Ibilgetu finantzarioa

Ibilgetu finantzarioak erosketaren prezioan islatzen dira, edo merkatuarenean hori txikiago balitz.

f) Hartzekodunak

Epe luze eta laburreko zorrak beren ordain-jasotzeko balioan kontabilizatuta agertzen dira, eta balio nominal edo ordain-jasotzean erantsitako balizko interes implizituak ere islatzen dira, ekitaldi batzuetan banatzekoak diren Gastuen epigrafean. Aipatu interesak emaitzei egosten zaizkie irizpide finantzarioa kontuan hartuta.

g) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapean irizpideari jarraiki egotzen dira, hau da, horiek ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontearen funtzioan, eta ez da kontuan hartzen horietatik ondorioztatzen diren moneta-korronte edo finantzarioko momentua.

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

Hala ere, zuhurtasun-printzipioari jarraiki, Sozietateak ekitaldia itxitako datan egindako mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu, eta jatorria ekitaldi honetan edo aurreko batean izanik, aurrikusteko moduko arriskuak eta balizko galerak, berriz, ezagutu bezain arin kontabilizatuko dira.

h) Gizarte Segurantzari egindako kotizazio gehigarriak

Gizarte Segurantzari ordaindutako kuota gehigarriak ezagutu eta likidatzen diren ekitaldia kontuan izanda, ekitaldi horretako pertsonal gastua bezala kontabilizatuko da, 480/1993 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Iragankorraren arabera, 1993ko apirilaren 1etik aurrera Toki Administrazioako funtzionariak erregimen orokorrean integratzeari buruzkoa, eta kontuan hartzen da ezen, ez dagoela Udalarentzat inolako pasibo edo obligaziorik.

4. Erabilera orokorrerako inbertsioak

2014eko ekitaldian epigrafe honen barnean sartutako kontuetan egondako mugimenduak, hurrengo hauek izan dira:

	Milaka eurotan
Hasierako saldoa	904
Eransketak	563
Irteerak	(607)
Amaierako saldoa	904

5. Ibilgetu ez-materiala

Epigrafe honek ikerketa eta proiektuak egiteari dagokion kostua jasotzen du, eta baita ere softwarearen erosketak. 2014. ekitaldian egindako mugimendu hauek izan dira:

	Milaka eurotan
KOSTUA	
Hasierako saldoa	2.827
Sarrerak	129
Irteerak	(65)
Amaierako saldoa	2.891
AMORTIZAZIOA	
Hasierako saldoa	2.040
Hornidurak	258
Irteerak	(16)
Amaierako saldoa	2.282
KONTABILITATEKO BALIO GARBIA	
Hasierakoa	786
Amaierakoa	609

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

6. Ibilgetu materiala

2014eko ekitaldian Ibilgetu materialaren kontuetan egondako mugimenduak, hurrengo hauek izan dira (milaka eurotan):

	Lurrak	Eraikinak eta beste eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta makinak	Altzariak eta beste	Informazio prozesuko ekipoak	Garraioko elementuak	Guztira
KOSTUA							
Hasierako saldoa	10.991	63.645	16.135	4.345	2.464	740	98.320
Sarrerak	330	528	379	44	6	31	1.318
Leheneratzeak (11. oharra)	97	856					953
Irteerak	(253)	(856)				(1)	(1.110)
Amaierako saldoa	11.165	64.173	16.514	4.389	2.470	770	99.481
AMORTIZAZIOA							
Hasierako saldoa		13.719	9.811	3.595	2.317	567	30.009
Hornidurak		1.286	1.511	181	53	44	3.075
Irteerak						(1)	(1)
Amaierako saldoa		15.005	11.322	3.776	2.370	610	33.083
KONTABILITATE BALIO GARBIA							
Hasierakoa	10.991	49.926	6.324	750	147	173	68.311
Amaierakoa	11.165	49.168	5.192	613	100	160	66.398

a) Guztiz amortizatutako ondasunak

2014eko abenduaren 31n badago, erabat amortizatuta dagoen 10 milioi euro inguruko jatorrizko kostua izan zuen, eta oraindik erabilgarri dagoen ibilgetu materiala.

b) Eskuratutako dirulaguntzak

2014. ekitaldian, Erakundeak 156 mila euro jaso ditu dirulaguntza kontzeptuan, ibilgetu materialean inbertitzeko helburuz (ikus 18a oharra).

7. Lurzoruaren udal ondarea

2014. ekitaldian egindako mugimenduak, honako hauek izan dira (milaka eurotan):

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

	Lurrak	Eraikinak	Guztira
KOSTUA			
Hasierako saldoa	2.372	2.154	4.526
Sarrerak	2.341	360	2.701
Irteerak/bajak		(628)	(628)
Amaierako saldoa	4.713	1.886	6.599
AMORTIZAZIOA			
Hasierako saldoa		600	600
Hornidurak		39	39
Irteerak/bajak		(101)	(101)
Amaierako saldoa		538	538
KONTABILITATEKO BALIO GARBIA			
Hasierakoa	2.372	1.554	3.926
Amaierakoa	4.713	1.348	6.061

Lurrak izeneko saldoan *SR-1 San Miguel Sartaldea* arloan egindako urbanizazio gastuak eta eskriturak egin gabeko lurzorak kontabilizatu dira.

8. Ibilgetu finantzarioa

2014. ekitaldian egindako mugimenduak, honako hauek izan dira (milaka eurotan):

	Partehartze Sozietate publikoetan	e/l maileguak Langileei	e/l mailegua Bilbao Ria 2000 SA-ri	Guztira
KOSTUA				
Hasierako saldoa	431	44	2.897	3.372
Sarrerak		46	200	246
Amaierako saldoa	431	90	3.097	3.618
HORNIDURA				
Hasierako saldoa	222			222
Murrizketak	(71)			(71)
Amaierako saldoa	151			151
KONTABILITATEKO BALIO GARBIA				
Hasierakoa	209	44	2.897	3.150
Amaierakoa	280	90	3.097	3.470

Sozietate publikoetan partehartzeari dagokion zenbatekoa, Behargintza Basauri-Etxebarri, S.L. eta Bidebi-Basauri, S.L. sozietateen 2014. urteko kontuek adierazten duten balio garbiaren

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

edo teorikoaren araberakoa da, jarraian azaltzen denez:

	Milaka eurotan	
	Behargintza	Bidebi
Kontabilitate Balio Teorikoa	258	58
% partehartzea	87%	100%

Bilbao Ria 2000 SA-ri e/l Aurrerapenaren saldoa, ADIF erakundearekin sinatutako Hitzarmenaren bideragarritasuna bermatzeko aipatu sozietateari ordaindutako kopuruei dagokie, eta hori Pozokoetxe, Bidebieta eta Lapatzaren hirigintza-garapenerako da.

9. Zordunak

Kontzeptu honetan sartutako kontu-sailen xehetasuna hau da:

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Ohiko ekitaldian, aitortutako zordunak	2.704	2.982
Itxitako ekitaldietan, aitortutako zordunak	2.011	5.448
Zordun diren erakunde publikoak eta besteak	334	59
	5.049	8.489
Hornidura gutxiago	(2.050)	(1.906)
	2.999	6.583
Guztira	2.999	6.583

Itxitako ekitaldian aitortutako zordunen saldoak 3,5 milioi euro barne hartzen zuen, Kutxabank entitatearekin hitzartutako eta erabili gabeko maileguari zegokiona (ikusi 13. oharra).

10. Finantza-kontuak

Kontzeptu honetan sartutako kontu-sailen xehetasuna hau da:

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Kutxa eta banketxeak	9.947	8.040
Epe laburreko ezarpenak	0	0
Diruzaintzako guztia	9.947	8.040
Langileei aurrerapenak	40	91
Bankukoak ez diren beste kontuak	89	95
	10.076	8.226
Kontu finantzarioak guztira	10.076	8.226

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

11. Berezko fondoak

Funts propioetan barne sartutako kontuetan izandako mugimenduak, 2014 ekitaldian, hurrengo hauek izan dira:

	Milaka eurotan			
	Ondarea	Lagatako ondarea	Erreserbak sozietate publikoetan	Galerak eta Irabaziak
Hasierako saldoa	97.693	(21.772)	163	1.231
Emaitzaren banaketa	1.342		(110)	(1.232)
Ondare sarrerak	(2.269)	(313)		
Ondare leheneratzeak (6. oharra)	187	766		
Ekitaldiko emaitza				1.114
Amaierako saldoa	96.953	(21.319)	53	1.114

Memoria honen 2. b) puntuan azaltzen denez, Ondarea epigrafeak honako partidak biltzen ditu:

<u>Kontuak</u>	<u>Milaka eurotan</u>
Ondarea	36.427
Erabilera orokorreko ondarea	(74.953)
Aurreko ekialdietako emaitzak	135.479
	96.953

12. Hornidurak, arrisku eta gastuetarako

Balantzean agertutako hartzekodunen saldoa (142 kontua), 80 milaka euro kopurua duena, aribidean dauden auzietatik ondoriozta daitezkeen obligazioak bermatzeko arrazoizkoa den hornidurari dagokio, 2014ko abenduaren 31 arte epaia eman gabe daudenena.

13. Hartzekodunak, epe luzera

a) Zorrak, kreditu erakundeekin

Erakundea	Helburua	Likidatzeko urtea	T/i (*)	Saldo zordun	e/l-ko zatia	e/lb-ko zattia
BBK	Inbertsioak	2016	E+0,10	510	170	340
BBK	Inbertsioak	2017	E+0,10	437	262	175
Banesto	Inbertsioak	2022	E+0,94	1.613	1.398	215
C.R. Navarra	Inbertsioak	2022	E+0,94	1.613	1.398	215
Kutxabank	Inbertsioak	2024	E+2,50	4.000	3.600	400
				8.173	6.828	1.345

* E = EURIBOR (komisiorik, biribiltzerik gabe, eta bitartekotzako gasturik gabe)

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

14. Hartzekodunak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Ezagututako obligazioengatiko hartzekodunak (ohiko ekitaldia)	2.535	3.254
Ezagututako obligazioengatiko hartzekodunak (itxitako ekitaldia)		1
Aplikatu edota jaso gabe dauden fakturengatiko hartzekodunak	14	47
Bestelako hartzekodunak	86	72
	2.635	3.374

15. Herri erakunde hartzekodunak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Ogasun Publikoa	778	907
Gizarte Segurantza eta beste Erakundeak	489	444
Bestelako kontzeptuak	411	243
	1.678	1.594

16. Bestelako zorrak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Jasotako maileguengatiko e/lb.eko zorrak	1.345	945
Jasotako fidantzak eta gordailuak	336	344
	1.681	1.289

17. Aplikatu gabeko diru-sarrerak

Epigrafe honetan, batez ere, BFAko Udalkutxa funtsaren konturako sarrerak daude. Sarrera horiek 2015 ekitaldian itzuli beharko dira 2014. ekitaldiko kitapenaren ondorioz.

18. Sarrerak eta gastuak

a) Transferentziak eta dirulaguntzak

Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak:

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

	Bizkaiko Foru Aldundia		Eusko Jaurlaritza		Beste batzuk		Guztira	
	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013
Transf. arruntak	24.389	22.800	2.173	1.307	86	718	26.648	24.825
Kapital transferentziak	63	1.012	131	196	(38)	0	156	1.208
	24.452	23.812	2.304	1.503	48	718	26.804	26.033

Emandako transferentziak eta diru-laguntzak:

Transferentzia eta dirulaguntza hauek familiei, kultura edo kirol izaera dutenei, eta batez ere, gizarte izaera duten laguntzak nabarmentzen dira. Halaber, menpeko sozietateei emandako transferentziak daude, 686 mila eurokoak Behargintzari eta 160 milakoak Bidebiri emandakoak.

b) Pertsonaleko gastuak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Soldata eta alokairuak	16.018	15.500
Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak	201	286
Kotizazio sozialak eta Elkarkidetzak	4.674	4.241
Beste gastu sozial batzuk	267	242
	21.160	20.269

Ekitaldian batez beste 370 pertsonak egin du lan; kopuru hori honela banatu da:

	Kultur		Zaharren			Guztira
	Udala	Etxea	Euskaltegia	Egoitza	K.U.E.	
Funtzionarioak, jabetzan dutenak	202					202
Bitarteko funtzionarioak	22					22
Lan kontratupeko langile finkoak		28	18	25	20	103
Aldi baterako langileak	12	10	11	12	10	43
Guztira 2014	236	38	29	37	30	370
Guztira 2013	230	39	27	33	29	358
Aldaketa	6	(1)	2	4	1	12

b) Ustiapeneko bestelako gastuak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Kale garbiketa eta zarama bilketa	4.373	4.269
Eraikin publikoen garbiketa	2.237	2.250
Etkez etxeko zerbitzua	1.690	1.984
Kontratu sozio-kulturalak	2.147	2.098
Kontserbazioa eta mantentzea	1.562	1.720

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

Ur hornidura	1.227	1.089
Energia elektrikoa	913	1.047
Parke eta lorategien garbiketa	977	963
Hondakin solidoak ezabatzea	1.042	894
Hiri garraioaren zerbitzua	398	398
Komunikazioak	241	278
Beste zerbitzuak eta gastuak	5.147	5.090
	21.954	22.080

19. Emaitza finantzarioak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
<i>Emaitza positiboak:</i>		
Epe laburreko ezarpenen interesak	15	19
Baiokodetzan jarritako sozietateen emaitzak	71	
<i>Emaitza negatiboak kenduta</i>		
Epe luzeko zorreatatik gastu finantzarioak	(66)	(67)
Baiokodetzan jarritako sozietateen emaitzak		(110)
Emaitza finantzario garbia	20	(158)

20. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Itxitako ekitaldietako sarrerak	1.712	2
Itxitako ekitaldietako eskubideak ezabatzea	(284)	(158)
Guztira	1.428	(156)

2014. urteko *Itxitako ekitaldietako sarrerak* izenburupean *San Miguel Sartaldea* arloko birpartzelazioan Basauriko Udalarari lagatutako bi lurzoruen balioa kontabilizatu da eta hori 2012ko maiatzaren 18an onartu zen behin betiko.

21. Ezohiko emaitzak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Inbentario eta beste operazioetako sarrerak	2.270	111
Inbentarioko bajak	(2.294)	
Ibilgetutik eratorritako mozkinak / galerak	(24)	111
Ezohiko galerak	(227)	
Ondarearen erregularizazioa (2.d oharra)		(570)
Total neto	(251)	(459)

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

Ezohiko galerak udalarena ez zen zoruan egindako urbanizazio obrak ibilgetuan ez aktibatzearen ondorioz sortu dira.

22. Itxi ondorengo gertaerak

Itxi ondoren ezagutu dugu Udalkutxa 2014ko behin-betiko likidazio negatiboa 670 milaka eurokoa izan da, 2015ko otsailaren 15an argitaratuaren arabera. 17. oharran azaldu den bezala, esandako likidazioa 2014. ekitaldiko *Aplikatu gabeko sarrera* gisa kontabilizatu da.

23. Finantzaketa koadroak

Jarraian, 2014 eta 2013 ekitaldiei dagozkien finantzaketa koadroak jasotzen dira:

BASAURIKO UDALA
Finantzaketa koadro bateratuak
(milaka eurotan adierazita)

FONDOEN APLIKAZIOAK	2014	2013	FONDOEN JATORRIAK	2014	2013
			Eragiketen ondoriozko baliabideak	2.954	5.231
Inbertsio errealak	3.540	2.248	Inbertsio errealen besterentzea		613
Ibilgetu finantzarioaren sarrerak	246		Ibilgetu finantzarioaren irteerak		5
Epe luzerako zorra gutxitu eta berriro sailkatzea	1.345	945	Finantza pasiboak	500	
Funtsen aplikazioak guztira	<u>5.131</u>	<u>3.193</u>	Funtsen jatorriak guztira	<u>3.454</u>	<u>5.849</u>
Aplikazioen gaineko jatorrizko gehiegizkoa (Kapital Zirkulatzaila gehitzea)		<u>2.656</u>	Jatorrien gaineko aplikazioen gehiegizkoa (Kapital Zirkulatzaila gutxitzea)	<u>1.677</u>	

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

a) Kapital ibilkorraren aldakuntza

	Milaka eurotan			
	2014		2013	
	Gehitzeak	Gutxitzeak	Gehitzeak	Gutxitzeak
Zordunak		3.584		898
Epe laburrerako hartzekodunak	57		2.107	
Finantza-kontuak	1.850		1.447	
Guztira	1.907	3.584	3.554	898
Kapital ibilkorraren aldakuntza		1.677	2.656	

b) Eragiketetatik datozen baliabideetara iristeko egin beharreko doikuntzak

	Milaka eurotan	
	2014	2013
Ekitaldiko emaitza	1.114	1.232
Gehitzeak:		
Amortizazioak	3.372	3.430
Baiokodetzan jarritako sozietateen emaitzak		110
Ezohiko galerak	227	
Ondarearen erregularizazioa		570
Ibilgetutik eratorritako mozkinak / galerak	2.294	
Gehitzeak guztira	5.893	4.110
Gutxitzeak:		
Baiokodetzan jarritako sozietateen emaitzak	71	
<i>San Miguel Sartalde</i> a arloko birpartzelazioa	1.712	
Ibilgetutik eratorritako mozkinak	2.270	111
Gutxitzeak guztira	4.053	111
Eragiketen ondoriozko baliabideak guztira	2.954	5.231

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

24. Diruzaintzako soberakina

	Milaka eurotan	
	2014	2013
+ Eskuratzeko dauden eskubideak:	2.035	6.102
- Uneko aurrekontukoa	2.703	2.988
- Aurrekontu itxietakoak	2.011	5.441
- Aurrekontutik kanpoko eragiketetakoak	138	139
- Zalantzazkoak diren kobrantzak	(2.050)	(1.906)
- Aplikatu gabeko sarrerak	(767)	(561)
- Ordaintzeke dauden obligazioak:	4.349	5.250
- Urteko aurrekontukoa	2.535	3.251
- Aurrekontu itxietakoak		
- Aurrekontutik kanpoko eragiketetakoak	1.821	2.004
- Aplikatu gabeko ordainketak	(7)	(5)
+ Funts garbiak	9.947	8.040
=Diruzaintzako soberakina	7.633	8.892
- Afektaturiko Diruzaintzako soberakina	4.102	5.378
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-SOBERAKINA	3.531	3.514

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

25. Adierazleak

FINANTZA ETA ONDARE ADIERAZLEAK		
<u>Likidezia beheralakoa</u>	<i>Finantza kontuak / Hartzekodunak, epe laburrera</i>	1,48
<u>Kaudimen epe laburrekoa</u>	<i>Aktibo zirkulatzailea / Hartzekodunak, epe laburrera</i>	1,93
<u>Zorpeketa epe luzekoa</u>	<i>Hartzekodunak, epe luzera / Pasiboa guztira</i>	0,08
<u>Ondare kaudimena</u>	<i>Berezko fondoak / Pasiboa guztira</i>	0,85
AURREKONTU ADIERAZLEAK		
<u>Gastuen egikaritzea</u>	<i>Ezagututako obligazioak / Behin- betiko aurrekontua</i>	0,85
<u>Inbertsio ahalegina</u>	<i>6.-8. kapituluaren gastua / Ezagututako obligazioak guztira</i>	0,08
<u>Sarreraren egikaritzea</u>	<i>1.-7. kapituluaren eskubideak / behin-betiko aurrekontua</i>	0,97
<u>Autonomia</u>	<i>1.-3. kapituluaren sarrerak / Sarrera arruntak guztira</i>	0,46